


Ingurumen Buletina

- 1. Elektrizitatearen prezioa goraka etengabe*
- 2. COP21erako bidea martxan da jada*
- 3. Klima aldaketa geldiarazteko epai esperantzagarria Herbehereetan*
- 4. Frackingari oztopoak gehitu dizkio Eusko Legebiltzarrak*
- 5. Alternatiben Herria: eman zure atxikimendua. SINATU!*

1. Elektrizitatearen prezioa goraka etengabe

Azken urteetan elektrizitatearen prezioa etengabe goraka doa, eta erreforma ezberdinak egin diren arren, sekula ez dira kontsumitzaile txikien mesederako izan. Igoera hauek are handiagoak dira espainiar estatuan EU28ren batez bestekoarekin alderatzen baditugu:



Krisia hasi zenean espainiar estatuko etxeetan kontsumitzen zen elektrizitatearen prezioa europar etxeetan batez beste kontsumitzen zena baino merkeagoa zen. 6 urte eta erreforma ezberdinen ondoren, tarte hori irauli egin da eta espainiar estatuko etxeetan europarrek batez beste ordaintzen dutena baino gehiago ordaintzen da orain.

2014ko igoera espainiar estatuan (%4,14) europarren batez bestekoa baino handiagoa izan da (%2,87).

Krisiaren eragina gutxi batzuk

ordaintzen dugula esaten dugunean ez dugu daturik gabe esaten. Prezio eta igoera eskandalagarri hauek batez ere etxeetako kontsumoan ematen dira. Igoera hauetatik kanpo geratzen dira industriako kontsumitzaileak. Hona hemen datuak:

	Elektrizitatearen prezioa (€/kWh)			
	Etxeak		Industria	
	2012	2014	2012	2014
EU28	0,195	0,208	0,116	0,120
Espainiar Estatua	0,228	0,237	0,120	0,117

2012an etxeetako eta industriako prezioen aldea handia zen, baina azken igoerekin tarte hau askoz ere handiagoa da. Kontsumo handiagoa duten industrietan, eta ondorioz klima aldaketan ere eragin handiagoa dutenek, elektrizitate kontsumoa garestiagoa izan beharko lukete, baina askoz ere merkeagoa dute eta beraz kontsumitzaile txikiak dira proportzioan zama handiagoa jasaten dutenak. Alde hau are larriagoa da espainiar estatuan, EU28an etxe eta industriako prezioaren artean dagoen tarte handia izanik ere, espainiar estatuan etxeetako elektrizitatea industriakoaren bikoitza ordaintzen baita. Gainera azken bi urteetan industriak kontsumitzen duen elektrizitatea merkatu egin da espainiar estatuan. Non geratzen da "kutsatzen duenak

ordaindu egin behar du" printzipioa? Industriaren eta enpresa elektriko handien esku geratzen da erreforma guztien onura.

2. COP21erako bidea martxan da jada

Ohikoa izaten da urtean behin, abendu inguruan, orduan ospatzen baita, Nazio Batuen Klima Aldaketari buruzko gailurraren inguruan aritzea, hau da, COP deituriko goibileraren inguruan. Ez da ordea ohikoa izaten urtean zehar aipatzea. Urte ezberdinetako hausnarketak hartzen baditugu beti antzekoa topatuko dugu, dagoeneko berandu gabiltzala eta ezinbestekoa dela COP goibileratik akordio anbiziotsu loteslea ateratzea. Badakizue ordea goibilera ondoren beti aipatzen duguna ere antzekoa dela, porrota izan dela.

Aspertu gara urtero gauza bera gertatzearekin, eta ez ELAn bakarrik. Mundu osoko mugimendu sozialen artean iritzi hau da nagusi. Eta horregatik ondorengo hilabete eta urteetarako beste dinamika bat jorratzen ari da klima aldaketari aurre egin eta justizia soziala eraikitzearen bidean. Hemendik aurrera zita ez da abendura mugatuko. Beharrezkoa baita mobilizazioa eta borroka urte osora zabaltzea. Goibilerako egunetan zehar gure indarra eta nahia kalean

erakutsiko dugu, mobilizazioaren bitartez eta Alternatiben Herria bezalako ekimen ugariaren bitartez (ekimen honen inguruan aurretik ere idatzi dugu).

Aurtengo abenduan COP21 Parisen izango da, eta urtero bezala mobilizazioak izango dira bai bertan bai munduko beste txoko askotan; bai goibilera aurretik, bai bitartean eta baita ondoren ere. Dagoeneko mundu mailako dinamika antolatzen ari da, eta azpimarra herrialde eta hiri bakoitzean sareak eraikitzen joatean ari dira indar egiten, abenduko egun horietako mobilizazioa garrantzitsua izango da eta prestatu beharra dugu, baina are garrantzitsuagoa izango da hurrengo hilabete eta urteetan egoera honi eta jasaten ditugun eraso neoliberaleri aurre egiteko antolatuta egotea.

Borroka hau ez da klima aldaketari aurre egiteko soilik, kapitalismoari aurre egiteko ere bada. Dagoeneko oso argi dugu klima aldaketa kapitalismoaren beste ondorio tamalgarri bat dela. Botere ekonomikoak eta kapital handiek aberastasunaren metaketa bilatzen dute, eta baliabide naturalen pribatizazioa, metaketa eta ustiatzearekin lotura zuzena izaten du horrek. Baliabide natural gehienak lehen mailako beharrak dira: ura, airea, janaria, energia, materialak...

Hauen espekulazioa kapitalismoaren muinean dago, eta hauen ustiapen modu ez-iraunkorak, klima aldaketa, gosea, pobrezia eta injustizia soziala eragin ditu. Klima aldaketa ez da kutsadura arazo bat soilik, sistema aldatu behar denaren beste adibide garbi bat da.

3. Klima aldaketa geldiarazteko epai esperantzagarria Herbehereetan

Herbehereetako justiziak munduko beste herrialdeetan aurrekaririk ez duen epaia ebatzi du. Gobernuari berotegi efektua geldiaraztea agindu dio, oraingoak baino neurri eraginkorragoak erabiliz. Epailleek neurri konkretuak ere ezarri dituzte, 2020 urterako klima aldaketa eragiten duten berotegi efektuko gas (BEG) emisioen %25a murriztea, orain ezarrita dagoen %16ko murrizketaren orde.

Salaketa jarri duena Urgenda gobernuz kanpoko erakundea izan da, beste mila herritarrekin batera. Lehen aldia da herritar talde batek giza eskubideen europar legedia errekurritzen duena kutsadurari mugak jartzeko.

Epailen argudioetan, agintariak klima aldaketaren arriskuetatik hiritarrak babesteko obligazioa dutela azpimarratzen

dute. Epailleek batzuetan agintarien lekua hartu behar izaten dutela gogorarazten dute, maniobra injustuak ekidituz babes hori bermatu behar denean hain zuzen. Epailleek diote kalte handiagoak ekiditeko 2020rako %25 eta %40 arteko emisio murrizketa eman beharko zela, beraz %25a egingarria den helburua dela.

Ordezkeri ofizialek emandako arrazoiak enpresen aldekoak izan dira. Halaber, enpresek murrizketa hauek egiteari uko egiten diotela eta kutsaduraren aurkako neurri gehiago hartzera presio egiten badiete herrialdea utzi dezaketela. Epaimahaiak alde batera utzi ditu arrazoi hauek herritarren ongizatea aurretik jarrita.

Kontuan izan behar da Herbehereetako lurraldearen %24a itsasoaren mailaren azpitik dagoela, klima aldaketaren eraginak izugarriak izango dira herrialde honetan beraz, baldin eta neurri zorrotzak berehala hartzen ez badira.

4. Frackingari oztopoak gehitu dizkio Eusko Legebiltzarrak

Iragan ekainaren 30ean, Eusko Legebiltzarrean gehiengoz onartu zen lege aldaketarekin frackingari oztopoak gehitu zaizkio EAEn. Bidea ez da erraza izan, Herri

Ekimen Legegilean (HEL) eskatzen zen debekuak, Estatuak Epaitegi Konstituzionalaren bitartez atzera bota ahal izateko bidea zabalik uzten zuen. Hau gertatu zen aurretik Nafarroan, Kantabrian eta Errioxan frackingaren aurkako legeak onartu zirenean. Horregatik, hemen beste bide bat jarraitu da, EAEk beregan dituen eskumenetan hiru arau aldaketa onartu dira praktikan frackinga ia ezinezkoa izan dadin, ez eta Auzitegi Konstituzionalak ere errekurtsorik jar dezan.

Onartu diren aldaketak hauek dira:

- Lurzoruaren legean aldaketa. Urbanizagarria ez den lurretan frackinga eragotziko da.
- Uraren Legea. Frackinga ez da erabili ahal izango kalteberatasun ertaina, altua edo oso altua duten akuifero zonaldeetan.
- Plan Energetikoetan ingurumen ebaluazio estrategikoak burutzeko exijentzia ezartzen da, eta ez putzuz-putzukoa.

Legebiltzarreko bozketan EH Bildu, PSE eta PPK lege aldaketaren alde bozkatu dute eta UPyD eta EAJ abstenitu egin dira. Azken egunetan EAJak frackingari 5 urteko moratoria bat ezartzea proposatu zien beste taldeei. Moratoriaren formula hau aurretik Andaluzian erabili zen bera da, baina

aurretik badakigu ez dela posible honen bidez ezer lortzea, Auzitegi Konstituzionalak errekurritu eta bertan behera geratu baitzen Andaluzian. Momentuz bide bakarra EAEk eskumena duen legetan aldaketak egitea da.

Frackingaren aurkako borrokan aritu diren herritar eta eragileak zoriondu nahi ditu ELAK, gaur egungo krisi ekologiko, sozial eta ekonomikoari aurre egin eta herritarren nahia errespetatzeko mobilizazioa beharrezkoa dela demostratu baitute. Aldi berean frackingaren aurkako HELa aurkeztu ahal izateko sinadura eman zuten 103.589 herritarrak ere zoriondu ditu.

Baina borroka hau ez da hemen amaitzen. Frackingaren aurkako leloak dioten bezala, "Fracking ez, ez hemen ez inon" da helburua. Eta horretarako EAEko legean aldaketak batzuk ematea baino haratago joan behar gara. Horregatik, frackinga bertan behera gera dadin, uztailaren 13tik 19ra Nazioarteko bilkura bat egin dute Arabako Sunbilla herrian, Frackanpada. Bertan herrialde ezberdinetako 50 kolektibotik gora, 100 hizlari inguru eta ehunka partehartzaile elkartu dira frackingaren aurkako borroka mundu mailan duen garrantziaren erakusgai.

5. Alternatiben Herria: eman zure atxikimendua. SINATU!

Buletin honetan ere Alternatiben Herria ezagutarazteko helburuarekin gatoz. Oraingoan Alternatiben Herriaren

manifestua sinatu eta ekimenari zure atxikimendua emateko eskaerarekin gatoz.

Sinatu ezazu [hemen](#).